

BILBO URIAK BIKTIMAK OROITU DITU MEMORIAREN EGUNEAN

- **Juan Mari Aburto** alkatea izan da omenaldian buru, Azkuna Zentroko atarian izan den ekitaldian, eta berarekin batera izan dira udal korporazioa eta Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Bilboko Foroko kideak.
- **Galo Bilbaok** euskaraz eta Inés **Núñezek** gaztelaniaz irakurri dute oroitzapenezko poema hunkigarri bat. Halaber, urian izan diren biktima guztien izenak irakurri dira, atariko pantaila tzar batean proiektatzen ziren bitartean izenok.
- Agintariek eta erakundeetako, botere judizialeko eta gizarteko ordezkariak loreak utzi dituzte biktimen oroitzapenetan, izen guztiak irarrita zituen totem batean ondoan.
- Bilboko Orkestra Sinfonikoak jo ditu zenbait musika-obra ekitaldian zehar.

(*Bilbo, 2020ko azaroaren 10a*).- **Juan Mari Aburto** Bilboko alkatea izan da buru gaur goizean biktimen alde **Memoriaren Egunaren** kariaz egin den omenaldian, eta berarekin batera izan dira **udal korporazioko** gainerako kide guztiak eta **Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Bilboko Foroko** kideak.

Bilboko Udalak antolatu du ekitaldia, eta Azkuna Zentroko atarian ospatu da, non oroitzapenezko totem batean gogorarazi baitira urian izandako biktimen izenak.

Omenaldia hasteko, poema hunkigarri bat irakurri dute **Galo Bilbaok** euskaraz eta **Inés Núñezek** gaztelaniaz. Gainera, Bizkaiko uriburuan izan diren biktimen izenak irakurri dira banan-banan, izenok atarian ezarritako pantailan proiektatzen ziren bitartean.

Omenaldiaren zatirik sinbolikoena lore-eskaintza izan da, agintariek eta erakundeetako, politikako, botere judizialeko eta gizarteko ordezkariak loreak utzi baitituzte biktimen oroitzapenetan, hartarako ipinita zegoen idulki baten gainean.

Ekitaldian, **Bilboko Orkestra Sinfonikoak** zuzenean interpretatu ditu Txaikovskiren *op.48 Harientarako Serenatako Elegiaren* zati bat eta Samuyel Barberen *op.11 Harientarako Adagioa*.

2010ean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde nagusiek azaroaren 10a izendatu zuten **Memoriaren Eguna**, horixe baita egun bakarra inoiz atentatu hilgarririk izan ez dena.

POEMA

Ahaztera gonbidatzen gaituzten bakoitzean, inoiz izan ez balira bezala
arimaren begiak **edo** samin zurtzaren ezpainak,
ahaztera eta sufrimendua deuseztera gonbidatzen gaituzten bakoitzean, oroitzapen batek
hartzten du osoki nire gogoa, alegia, badirela gure lurrian ausentziazko kalbarioak, ez
hiltzera tematzen diren sentimenduak...

Ahantzura beterik da oroitzapenez.

Iratarz gaitezen beldurrik gabe, eta parteka ditzagun gure ametsak gure hurkorik
hurreenaren ametsekin, **biktimarenekin.**

Nahiz eta jada ez zaituzten ikusten nire begiek, nahiz eta jada ez dudan zure ahotsik
entzuten,
zure oroitzapena bizirik da nire bihotzean,

nahiz eta ezin aditu nire ondolik erauzi zintuen arrazoia,
nahiz eta gura izan nuen zurekin batera joan,

nahiz eta malkoak etortzen zaizkidan sarri,
nahiz eta nire bizia eman izango nukeen zurearen orde,

Badakit hemen zaudela...

haizearen bafadan, zuhaitz batetik
hosto bat erortzen denean, malko bat isurtzen denean berriro,

Badakit hemen zaudela...

sentitzen dudanean baten batek
zaintzen nauela,
irteera aurkitu ezin dudanean,
berba egin beharra dudanean.

Badakit hemen zaudela...

niri entzun ahal izateko.

Sentitzen dut hor zaudela oraindik...
eta jada ez diot beldurrik heriotzari,

Badakidalako beti egongo zarela hemen,
nirekin, gure familiarekin, zeina tarte honetan
gehitu egin baita, badakizu.

Hitz egin diet zutaz, nola eraman zintuzten,...
ondo dakite.

Eta zu maitatuz minaren gainetik,
ikasi dute bizia maitatzen.

Hemen sentitzen zaitugu, etxean. Beti
etxean. Beti hemen, nirekin.

BILBAO RECUERDA A LAS VÍCTIMAS EN EL DÍA DE LA MEMORIA

- El Alcalde, **Juan Mari Aburto**, junto a la Corporación Municipal e integrantes del Foro Bilbao para la Paz y la Convivencia ha presidido el homenaje, que este año se ha desarrollado en el Atrio de Azkuna Zentroa.
- **Galo Bilbao**, en euskera, e **Inés Núñez**, en castellano, han sido las personas encargadas de la lectura de un emotivo poema de recuerdo. También se han leído los nombres de todas las víctimas de la Villa, al tiempo que se proyectaban en la pantalla gigante del Atrio.
- Las autoridades, representantes institucionales, judiciales y sociales han depositado flores en recuerdo a las víctimas junto a un tótem con todos los nombres grabados.
- La Orquesta Sinfónica de Bilbao ha interpretado en vivo varias piezas musicales durante el desarrollo del acto.

(Bilbao, 10 de noviembre de 2020).- El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, junto al resto de la **Corporación Municipal** e integrantes del **Foro Bilbao para la Paz y la Convivencia**, ha presidido esta mañana el homenaje a las víctimas en el **Día de la Memoria**.

El acto, organizado por el Ayuntamiento de Bilbao, se ha celebrado en el Atrio de Azkuna Zentroa, donde un tótem conmemorativo recordaba el nombre de las víctimas de la Villa.

El homenaje ha comenzado con la lectura de un emotivo poema a cargo de **Galo Bilbao**, en su versión en euskera, y de **Inés Núñez**, en su versión en castellano. Además se han leído los nombres de cada una de las víctimas de la capital vizcaina, al tiempo que se han ido proyectando en la pantalla del Atrio.

La parte más simbólica ha sido la ofrenda floral, cuando las autoridades, representantes institucionales, políticos, judiciales y sociales han depositado, en una peana colocada para ello, flores en recuerdo a las víctimas.

El evento se ha desarrollado con la música en directo de la **Orquesta Sinfónica de Bilbao**, que ha interpretado dos piezas; un fragmento de la *Elegía* de la *Sereneta para Cuerdas op.48* de Tchaikovsky y el *adagio for strings op. 11* de Samuel Barber.

En 2010, las principales instituciones vascas instauraron el 10 de noviembre como **Día de la Memoria**, por tratarse de la única fecha en la que nunca se ha producido un atentado mortal.

POEMA

Cada vez que nos invitan a olvidar, como si nunca hubieran existido los ojos del alma o los labios de la pena huérfana, cada vez que nos invitan a olvidar y a borrar el sufrimiento, me invade el recuerdo de que en nuestra tierra hay calvarios de usencia, hay sentimientos que se niegan a morir...

El olvido está lleno de memoria. Destapémoslo sin miedo y compartamos nuestros sueños con los sueños de nuestro prójimo más próximo, la víctima.

*Aunque ya no te vean mis ojos, aunque ya no escuche tu voz,
tu recuerdo vive en mi corazón,*

*aunque no entienda la razón que te arrancó de mi lado,
aunque quise haberme ido contigo,*

*aunque las lágrimas me visiten a menudo,
aunque por ti habría cambiado mi vida,*

Sé que estás aquí...

en el soplo del viento, cuando de un árbol cae una hoja, cuando una lágrima vuelve a brotar,

Sé que estás aquí...

*cuando siento la sensación de que alguien me cuida,
cuando no puedo encontrar la salida, cuando necesito conversar.*

Sé que estás aquí ...

para poderme escuchar.

Siento que aún sigues aquí...

y ya no temo a la muerte,

Porque sé que siempre estarás aquí, conmigo, con nuestra familia, que en este tiempo ha crecido, ya lo sabes.

***Les he hablado de ti, de cómo te llevaron,... lo saben bien.
Y amándote a ti por encima del dolor, han aprendido a amar la vida.***

Te sentimos aquí, en casa. Siempre en casa. Siempre aquí, conmigo.